

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko martxoaren 11. VIII. urtea. 2.191. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Asteasuko Pello Errota eskolako haurrek baratza bat izango dute

Eskolako eta udaleko arduradunek Eskola Agenda 21ari lotutako hitzarmena sinatu dute; ingurumena kontutan hartuta ikasleek elikagaien gaia jorratuko dute

Ikasturtea amaitu baino lehen berriz elkartuko dira eta eskolako gazteek eskoletan, modu desberdinetan, landutakoaren berri emango diete udal ordezkari ^{o4}



Asteasuko udaletxean bildu ziren eskolako zein udaleko arduradunak. E.MAIZ

Tolosako Auzo Txikian ere hasi dituzte AHTren lanak

Urkizura bidearen errepide ondoan dagoen belaze batean auzotarrentzat bidea egokitzen ari dira, Tolosa-Hernialdeko lanen zatian agerikoak dira lur mugimenduak ^{o3}



→ **Ignacio Garcíaren lanak Alegian.** Jubilatuen tabernan hirugarrenez ditu erakusgai margo-lanak. Tolosarraren lanak ikustez gain, erosi daitezke. ^{o3}



farmadenda
_parafarmazia

NUTRIZIO KONTSULTAK:

Asteartero eta ostegunero eskaintzen dira 'DietaFacil' etxearen eskutik. Laser depilazioa (TAHE). Prezio ezin hobeak.

lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@gmail.com





GI-2130 errepidea Elduaingo sarreraren inguruan. A. IMAZ

GI-2130 eta GI-2631 errepideak berrituko dituzte datozen hilabeteetan

Hiru hilabete inguru iraungo dute lanek eta eskualdean, Asteasun eta Berastegin burutuko dituzte

Guztira 370.000 euroko inbertsioa egingo du Foru Aldundiak, Tolosa eta Leitza arteko GI-2130 errepidean, 13.000 kilometro puntutik 16.060 kilometro puntura alde batetik.

Bestalde, GI-2631 errepidean 5.080 kilometro puntutik 10.630 kilometro puntura izango dira berritze-lanak, Villabona, Orioko gaina (Zudugarai), Aia eta Asteasu artean.

Errepideko zoruaren berritze lanek hiru hilabete iraungo dute,

eta Berastegin udalerriko hiru kilometro eta Asteasuko beste bost berrituko dituzte eskualdean.

Asfaltatze lanez gain, bestalde, GI-2130 errepideko bi zatitan 300 metroko hormigoizko areka edo kuneta berregingo dute, eta GI-2631ko hiru zatitan berriz, 860 metrokoa.

Era berean, bi errepideen arteko hamazazpi kutxitila ere berritu egingo dituzte.

✉ tolosa@hitza.info

Jon Goioaren atxiloketa salatzeak elkarretaratzea egingo dute gaur

I. Urkizu Tolosa

Pasa den asteartean atxilotu zuen polizia frantsesak Jon Goio Jimenez tolosarra Baionan. Bere aurkako euroagindu eskaria zegoela jakinarazi ostean, Toulou-

seko Seysses espetxean kartzelaratu izan zen. Ordu batzuk lehenago, Ibai Agirrebarrena, Joseba Agirrebarrena lizartzarren semea, ere atxilotu zuten Baionan.

Jimenezen aurkako euroagindua duaren bista gaur bertan buru-

tzekoa zen berez, baina Goioaren abokatuaren esanetan atzeratu egin daiteke. Bitarte horretan espetxean egon beharko du tolosarrak. Atxiloketaren aurka protesta egiteko, elkarretaratzea izango da gaur, 19:30ean Tolosako Trianguloa plazan.

Ibai Agirrebarrena aske

Jon Goio Jimenezekin batera atxilotu zuten asteartean Joseba Agirrebarrena errefuxiatu lizartzarren semea, eta atzo bertan aske geratu zen.

Baionan atzeman zuen Frantziako polizia Ibai Agirrebarrena, eta berri agentzien arabera Parisko epaile antiterrorista batak irekitako dossier baten baitan zegoen haren atxiloketa. Iazko maiatzean ere libre geratu zen polizia operazio handi baten barnean atxilotua izan ondoren.



→ Laburrak

Gaztetxoentzako ekintzak igandean Usabalen

TOLOSA › Datorren igandean, martxoak 13, haur eta gaztetxoentzako ekintzak izango dira Usabal kiroledegian 17:00etatik 19:30era bitartean. Goiko kantxan puzgarriak izango dira 3 urtetik 10 urtera bitartekoentzat, eta 3 urtetik 12 urterakoentzat berriz, beste hainbat ekintza ere izango dira, horien artean euskaraokoa egongo dela azaldu dute.

Langabe eta langileentzat ikastaroa

TOLOSA › Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak hilaren 21etik aurrera testuak editatzeko eta kalkulu orriak nahiz datu-baseak burutzeko ikastaroa eskainiko du langile nahiz langabeentzat. 40 ordukoa izango da ikastaroa, eta arratsaldeko 18:00etatik 21:00 bitartean izango dira eskolak. Oraindik badira leku libreak izena eman nahi duenarentzat eta %100eko dirulaguntza duen ikastaroari buruzko informazioa ikastetxean bertan edo 943 65 11 47 telefonoan eskura daiteke.

Zaldunita eguneko argazkiak eskuragarri

TOLOSA › Zaldunita egunean Potrokol konpartsa argazkiak ateratzen jardun zen jende erdi biluztuari, Artxiboaren aurrean. Bertan atera zituzten argazkiak eskuragarri daude www.age-rrimedia.com interneteko helbidean, eta dohainik deskargatu ahal izango dira.

Piñata igandean txaranga lurreamendin izango da

TOLOSA › Urteroko moduan, datorren martxoaren 13an, Piñata igandean, Poca Tripa txaranga eta Txilabaren konpartsa lurreamendi egoitzara joango dira Inauterietako giroa bertan zabaltzera.

Hezkuntza eta heziketa jardunaldien azken eguna

TOLOSA › Hezkuntza eta heziketaren inguruko jardunaldien azken emanaldia egingo dute gaur, 17:30ean, Haur Liburutegian. Yolanda Gonzalez psikologoaren hitzaldia bideo bidez emango dute, eta gaia *Etsipen karakteriala eta bere gizarte eta hezkuntza ondorioak osasunarekiko* izango da. Proiekzioa amaitu ondoren solasaldia izango da bideo emanaldiaren inguruan.

Kirol jarduera zabala izango da asteburuan Usabal kiroledegian

I. Urkizu Tolosa

Asteburu honetan kirol aktibitate zabala izango da Usabalen, eta eskola kirolek hasita nazional mailako partidak izango dira ikusgai.

↓ Usabalgo kirola

MARTXOAK 12

- **09:00-10:00.** Saskibaloia goiko kantxan. Infantil neskek: Take Bedaio-Easo. Infantil mutilak: Take Aldaba-Mitxelena. Infantil mutilak: Take Bedaio-Oiarso.
- **09:30-10:00.** Eskola kirola beheko kantxan, kadete mutilak: Aretxola futbola.
- **10:00-11:30.** Futbola, kadeteak: Tolosa CF-Beti gazte.
- **10:30-11:30.** Saskibaloia goiko kantxan. Kadete mutilak: Triki Take-Easo Urkiza. Kadete mutilak: Bide Bide-Oiartzun. Infantil neskek: Take Urkiza-Easo Adarra.
- **10:30-11:30.** Eskola kirola, kadete neskek: Aretxola futbola.
- **11:30-12:30.** Ohorezko kadete maila: Tolosa CF- Real Union.
- **12:00-13:00.** Saskibaloia goiko kantxan. Junior mutilak: Take Tolosa-Erroibide. Kadete mutilak: Take Tovar-AYMA. Kadete neskek: Take Aralar-Atco SnSn.
- **15:00-18:30.** Judoa tatamian.
- **15:30-17:30.** Futbola, preferente maila: Tolosa CF-Aretxabaleta.
- **16:00-17:30.** Saskibaloia, nazional maila, goiko kantxan: Bide Bide- Urdaneta.
- **16:45-17:30.** Nesken areto futbola beheko kantxan: Laskorain- Aker Beltz.
- **18:00-19:30.** Aretxola futbola, nazional maila, goiko kantxan. Laskorain- Jarrileros.
- **18:00-19:30.** Saskibaloia beheko kantxan: Take Orbelakraft Atco Sn.
- **17:30-19:00.** Futbola, emakume seniorrak: Tolosa CF- Mutriku.

MARTXOAK 13

- **10:30-12:00.** Aretxola futbola goiko kantxan: Laskorain- 2 king.
- **11:00-12:30.** Futbola, alebin neskek: Tolosa CF- Beasain.
- **12:00-14:00.** Eskubaloia goiko kantxan, kadete maila: Tolosa- Pulpito.
- **11:50-14:00.** Saskibaloia beheko kantxan, junior neskek: Aralar kirolak- Easo.

Tolosako Auzo Txikian, Urkizurako bidean, hasi dira AHTren lanak

Errepidearen ondoan aurkitzen den belaze batean ari dira lanean, auzotarrentzat bidea egokitu nahian

Asier Imaz Tolosa

Tolosa-Hernialde Euskal Y-aren Gipuzkoako adarrean obretan da goen zortzigarren zatia da. Auzo Txikian, Urkizurako bidean, lur

mugimenduak agerikoak dira jada.

Urtarrilaren amaieran, Tolosa eta Hernialde lotuko dituen Abiadura Handiko Trenaren zatiko lanei hasiera emango zietela iragarzeko, Ernesto Gasco, Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuordea, eta Pedro Luis Rio, Gobernu Zentralak Euskadin duen azpiordekaria, izan ziren Tolosako San Esteban auzoan. Tolosako udal ordezkariak gain, Euskal Trenbide Sareko zuzendaritza taldeko ki-

deak eta zati honen esleipena duten eraikuntza eta zuzendaritza enpresetako ordezkariak izan ziren bertan.

Aurkezpenak aurkezpen, Auzo Txikian lanak iragan asteen hasi ziren. Errepidearen ondoan aurkitzen den belaze batean kutzareen bidez aldaketak egiten ari dira, oraingoz lurra bakarrik mugitu dute. Udaletik azaldu dutenez, azpiegituraren obrak egin aurretik bizilagunentzat bidea egokitzekoak ziren.



Tolosako Auzo Txikian, Urkizurako bidean, AHTren lanak hasi dituzte. A. IMAZ

↓ Gutuna

Ura, lurra eta airea

Lurrabe desjabetu gisan, jasan behar izaten dugun zapalkuntza, bazterketa eta irainak dira eguneroko ogi.

Zundaketa lanetatik hasi eta hondea makinak lur biziari harginka asteraino jasan behar izan dugunak sortu dugun beldurrak oraindik dardarka gauzka.

Jasaten ari gara gezurrez ahoa beteta datorren herri agintariaren labankada. Jasaten ari gara langile fin eta jatorraren plantan baimenik gabe gure lurrrak lapurtzen dizkigunaren harrokeria (ezin dut aipatu gabe utzi kasu askotan eskualde honetako jendea dela eta maiz festa, taberna eta txosna berean topo eginak garela) eta nola ez, jasaten ari gara mota guztietako polizien eta epaitegien terrorea.

Lurrarekin hartu-emanen bizimodua planteatu dugun gazteak zapalduak bagara, zer esan gurasoetz? Urteetan beiraiek landu duten lurra suntsitzen ikustea gorputza atalez atal etenka xehatzearen pareko zaie. Nola ulertarazi astakeria honen helburua gutxi batzuen pentsioak diruz gizentzea dela?

Hori gutxi balitz, inguruan dabilen makina eta kamioien mugimenduaren ondorioz, maiz nork bere etxean preso egon behar izaten du nahiz eta sukaldeko su epelaren goxoa leherketen zartadek mingostu.

Kontu beldurgarri hauekin luza gaitezke baina ezin dugu etsipenean erori. Inoiz baino elkartuago eta komunikazioan egon beharra sentitzen dut geure artean. Ez dugu ahaztu behar Abiadura Handiko Trenari buruz ari garen honetan beste hainbat proiektu suntsitzaile martxan direla (erraustegia, espetxea, superportua edo geure herrian planteatu diren behar ez ditugun edozein obra) eta bertan ere desjabetuak eta zapalduak izango direla.

Honen aurrean zerbaiteko balio badizue eskua luzatzen dizuet esperientziak trukatu eta laguntza eskaintzeko asmoz. Izan ere, halako egoerak kudeatzeko ezinbestekoak dira informazioa, elkartasuna eta tinkotasuna.

Jada, jakineko gara pertsona %80ean ura dela, airea arnastu behar duela eta lurrrak ematen

diola bazka. Har ditzagun oinarrikoak ditugun hiru elementu hauek, lurra, ura eta airea, eta bakoitzak geure buruari egiteko galdera bat proposatzen dizuet: Ohartuta eta oharkabean, zer egiten diot lurriari, urari eta haizeari?

Kontraesanez beteta senti gaitezke eta ariketa gogorregia gerta dakiguke. Hala ere ez beldurtu, gutariko bakoitzak ariketa hori eginda, kontraesanak, zalantzak, beldurrak eta abar konpartitzeko badugu norengana jo.

Animatzen? Berriro ere lurra, ura eta airea ardatz hartuta, nola babestu eta zer ezin diogun egin hitz egiteko, eztabaidatzeko eta adosteko gure baserriko atek zabala diraute. Gombidatuak zaude eta irrikaz gaude etor zaitzeten.

Amaitzeko, abagune hau baliatu nahi nuke elkartasun leinu guztiak bihotzez eskertzeko, zenekez imajina dezakezue gehien behar denean aipu soil batek zer-nolako piztea suposatzen duen.

■ **Aitor Esnaola.** AHTren kaltetua.

'Casadelobos' ikuskizuna bihar Topic-en 18:00etan

Joan Baixas antzerki adituak abestiek eta kontakizunekin egin duen muntaia eskainiko du

Erredakzioa Tolosa

Casadelobos muntaia aurkeztuko dute bihar, hilak 12, Topic zentroan, 18:00etan.

Joan Baixasek sortutako muntaia ikusteko haurrek 4 euro ordaindu beharko dute eta helduek 7 euro. Familia ugarien kasuan, haurrek 3 euro eta helduek 5. Sarrerak Topic zentroko leihatilan eta Servikutxan, Telekutxan (943001200) eta www.kutxa.net webgunean eros daitezke. Familia ugarietako sarrerak Topic zentroko leihatilan soilik egongo dira eskuragarri.

Joan Baixasen muntaia

Ipuinetan eta mitologietan orotariko otsoak agertzen dira: oihanean haurrak jasotzen dituztenak, artaldeei erasotzen diotenak, piztia izugarri bihurtutako ardiak, eta ilargiari kantatzen diotenak. Otsoak, ardiak, txakurrak eta pertsonak elkarrengandik bereizi ezinezko pertsonaia dira; denen artean, sinboloz eta iradokizunetz beteriko arabesko bat osatzen dute, Elias Canettiren, Nazim Hikmeten eta elezahar tra-

dizionaletatik hartutako testuak elkarri josiz osatutako ipuin batean.

Madrelobak bere istorioa kontatuko digu, hotsen eta mugimenduen bidez, haizearen eta uraren, animalien eta pertsonen ahotsak entzunez, denboran barrena bidaiatzen den aztia bezala, irribarrez eta luma hankez. Arratsalde lasai bat, Montnegreko basoan; halako batean, udako ekaitza lehortu da, sua. Jaioberri baten oihuak entzunda, otseme-ardia hurbildu egin da, eta...

Paca Rodrigo eta Mauricio Villavecchia, eklektizismoa eta ironia lagun, orotariko musikekin jolas egiten dute: Mozarten musikarekin, abesti tradizionalarekin, baita jazzean eta musika etnikoan inspiratutako beren konposizio propioekin ere.

Baixas antzerki bisualean adituak ikuskizun-collage bat dakar: abestien eta kontakizunen uztarketa bat da, objektuen eta irudien uztarketa bat, Paca Rodrigo antzezle eta dantzariaren, abeslari eta ahots irakaslearen neurritza egina. Paca Rodrigok musika eta dantza landu ditu, eta bilaketa eta esperimentazioa jorratu ditu ahotsarekin. Antzerki ikuskizun azkotan parte hartu du, hainbat zuzendarirekin, Carles Santos, Joan-Albert Amargos eta Jordi Sabates musikagileekin eta Mal Pelo eta Marga Guergue dantza taldeekin, besteak beste.



Casadelobos muntaia une bat. HITZA

ZUZENKETA

➔ **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariaren 2.189. zenbakian, asteazkenekoan, Inauterien gaia jorratu genuen.

Inauteri guztietan bezala, azkeneko orrian *Gora eta behera* atala aurkitzen zen. Beherakako geziaren ondoan, herritar batzuk mozorrotu gabe agertzen ziren konpartsei begira, San Frantzisko kalean. Hauek minduta zuzendu dira guregana, egin duguna bidezkoa ez dela esanaz. Gure asmoa inor mintzea ez zenez, barkamena eskatu nahi diegu kaltetuta sentitu direnei. Argazkia publikatu aurretik baimena eskatu behar geniela ere onartzen dugu, zertarako zen azalduaz. Zuzenketa hau eta barkamen eskaera ez dira nahikoa izango minduta dagoenarentzat, ondorioz, gaizki egin kontutan hartuko dugu inondik ere gehiago errepika ez dadin.

Tolosaldea



BERTSOLAMINTZA

Martxoak 12, larunbata
Villabonako Gurea antzokian

- 9:00 Elkarretarata.
- Aurkezle eta moderatzaile: Laxaro Azkune
- 9:30-9:45 Andoni Egaña: Nola gairitzen dira inertzia ideologikoak? Zerbaiteraino obligatzen dute?
- 9:45-10:00 Amaia Vazquez: Inprobisazioaren gozamina: oholtzako bertsolaria nola eskatu proiektuetatik eta unean unekoa gozatu.
- 10:00-10:15 Eric Dicharry: Bertsolaritza eta umorea.
- 10:15-10:30 Egoitz Aizpuru: Gai-jartzailea emagin? Zerbaiteraino markatzen du gairen ikuspegiak eta tonuak ondorengo bertsolaldia?
- 10:30-10:45 Ibon Arizabalaga: Gorbata ala amantilla erantzita... andre-gizonak bertsotan biluzki?
- 10:45-11:30 Lehen 5 hitzaldi buruzko eztabaldia irekia.
- 11:30-12:00 KAFEA GUREA antzokiko sarreran.
- Aurkezle eta moderatzaile: Ainhoa Agirrezaldegia
- 12:00-12:15 Jon Martin eta Estiku Elzargine: Zer ikasi behar da bertsu eskolatan? zer deskasari?
- 12:15-12:30 Jon Ansa: Bertsokera(k) eta sistema(k).
- 12:30-12:45 Oier Arriola: Txapelketaren kontra
- 12:45-13:00 Fredi Paia: Zelan eragiten dio txapelketak somenari? Epaleak kalitate ziurtatzen?
- 13:00-14:00 Azken 4 hitzaldi buruzko eztabaldia irekia.
- 14:00-16:30 BAZKARIA "Behar zana" Elkartearen.
- 17:00-19:00 Bertsu saio esperimental: Imanol Lazkano, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus, Jone Uria, Ukue Alberdi, Julio Soto, Unai Iburriaga.
- Gai-jartzaileak: Egaña eta Egoitz Aizpuru.

Bazkari eta saiorako txartela 20 €
Saiorako sarrera 5 €

AGENDA
Emakumearen astearen baitan

Martxoak 11
"Ikus, entzun eta biz..." EMANALDIA
20:00 etan Gurea Antzokian.

- Nahikari eta Iritzi Galarraga, Aukeran dantza taldeko partaideen erakustaldia.
- ASMIJUE abesbatza.
- Idoia Sanchez Ipin kontalaria: Emakumezartat ipuinak.

Martxoak 12 • BAZKARIA
14:00etan Olentzon. 18 €.

AIZTONGO KLASIKA VIII
Martxoak 13
Ireiera 10:00etan Adunatik, Amaiera Villabonan 13:00etan.

AIZKARDIEN IRTEERA
Martxoak 13
7 eta 16 urte bitarteko haurren erakustaldia.

GIPUZKOAREN JATORRIAK
HISTORIA MITOAREN ETA ELEZAHARRAREN ARTEAN
Martxoak 14
Solasaldia eta DVD Emanaldia

MAPA TOPONIMIKOEN ERAKUSKETA
Martxoak 14
Astelehena ostriarara: 18:00etatik 20:00etara, Larunbatean 11:00etatik 13:30era.

GAZTELEKUKO INAGURAZIOA
Martxoak 19 • Goizeko 11:00etatik 12:00etara.

ANTZERKI TALERRA
Martxoak 19
Goizeko 9:30etatik 13:30etara

JUBILATUEN ELKARTE BERRIAREN INAGURAZIOA
Martxoaren 26 • Goizeko 11:00etatik 13:00etara.

AIZKARDIKO 43. IBILADIA
Martxoak 27
Ireiera Mikar plazatik • (Eguraldi txarra egingo balu Bear zana Frontoietik).

larunbatero
XAKE TXAPELKETA • 16:00etatik aurrera apirila arte.

ZINEA
Sarrera 1 € (Asteburuetan irabaztearen eguna 3 €)

127 HORAS
Martxoak 12 Larunbata, 22:30etan
Martxoak 13 Igandea, 19:30etan
Martxoak 14 Astelehena, 21:30etan

DE DIOSOS Y HOMBRES
Martxoak 26 Larunbata, 19:30etan
eta 22:30etan
Martxoak 27 Igandea, 19:30etan
Martxoak 28 Astelehena, 21:30etan

EL DISCURSO DEL REY
Martxoak 19 Larunbata, 19:30etan
eta 22:30etan
Martxoak 20 Igandea, 19:30etan
Martxoak 21 Astelehena, 21:30etan

ENREDADOS
Martxoak 13
Igandea 16:30etan

HAURRINTZAKO ZINEA
Sarrera 2,50 €

EL SECRETO DE LA LUNA
Martxoak 20
Igandea 16:30etan

ADELE
Martxoak 27
Igandea 16:30etan



Udaletxean elkartu ziren Agenda 21eko Konpromezu Hitzarmena sinatzeko. E. MAIZ

Pello Errota eskolak eta Udalak Eskola Agenda 21eko hitzarmena sinatu dute

Herriko eskola aurten sartu da Agenda 21eko programan; konpromisoa sinatu dute

Enertz Maiz Asteazua

Atzo Pello Errota eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak, irakaslea, Agenda 21eko eta udaleko teknikariak eta alkatea, udalarekin elkartu ziren Eskola Agenda 21ari lotutako konpromiso hitzarmena sinatzeko.

Udala Agenda 21ean iaiztik sartuta badago ere, Pello Errota eskola aurten sartu da proiektu honetan. Beste herrietako eskoletan egingo duten moduan, ingurumena kontuan hartuz, elikagaiak jorratuko dituzte eta horretarako

baratza ere izango dute ikasleek. Jarraian, ikasturtea amaitsu baino lehen, berriro elkar tuko dira udal ordezkariak egindako lanaren berri emateko.

2005-2015. urteen aldia, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren hamarkadatzat hartzen da. Hori dela eta, administrazioei, hezkuntza elkartei eta herritarrei garapen jasangarria lortzeko itunak egitea eta erantzukizunak hartzea gomendatu eta eskatu zieten atzokoan.

Konpromisoa hartuta

Era berean, hitzarmena sinatzearekin batera, Udalak eta eskolak, betebeharrak batzuk onartu zituzten. «Baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzea, biztanleriaren bizi-kalitatea ziurtatzea eta herritarrek garapen jasangarriko egokitzearen garrantzia

eta beharra onartzen ditugu», zehaztu zuten.

Ikasleek beraiek irakurri zituzten konpromiso batzuk eta beste artean, «ikastetxeko ingurumen-batzordeak eratu eta proiektuaren arduradunak» izendatuko dituztela eta «grapek-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko» dituztela. Urteko emaitzak eskola eta udal-elkartari jakinaraziko dizkiotela ere jakinarazi zuten.

Era berean, eskolako partaide-tza-foro bat ezarri eta sustatuko dute, udalerriko ingurumena aztertze eta eskolaren proposamenak jasotzeko.

Amaieran, Iñaki Amenabar alkateak, Agenda 21 proiektuan sartzeko erabakia hartzeagatik «esker onak» eman nahi izan zizkien «ikasle, guraso eta irakasle guztiei».

Halterofiliako Gipuzkoako Junior Txapelketa jokatu da, bihar

Txapelketa Villabonako Olaederra kiroldegian izango da. Pultsulariak 11:00etatik aurrera hasiko dira lehiatzen

E. Maiz Villabona

Halterofiliako Gipuzkoako Junior Txapelketa jokatu da Villabonan. Larunbatean, hilaren 12an, 11:00etatik aurrera izango da hitzordua Olaederra Kiroldegian. Danena-Olaederra Halterofilia Taldeak dagoeneko hasi du denboraldia eta 2011. urteari hasiera ona eman diote. Oraingoan herritarren aurrean lehiatuko dira.

Emaitza onak

Otsailaren 19an, Gasteizen, Euskadiko lehenengo liga ospatu zen Kadete eta Promesa mailetan. Kadeteen mailan, banakako sailkapen orokorrean Daniel Lopezek hirugarren postua lortu zuen, Ionut Danduk seigarrena eta Sofyam Rocndik zazpigarrena.

Taldeko sailkapenean berriz, eta pultsulari bat gutxiagoarekin, laugarren postuan sailkatzea lortu zuten Danena-Olaederra pultsulariak.

Promesen mailan, banakako sailkapen orokorrean, Adrian Sasianek lehenengo postua eskuratu zuen, Asier Gallegok bigarrena, Kellyam Quintana hirugarrena eta Joseba Arratek laugarrena. Taldekako sailkapenean berriz, lehenengo postua lortu zuten.

Gutuna

Odriozola familiaren eskertza

Manuelen senide maiteak, lagunak eta babesak eman diguzuen guztiori, familiaren partetik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Mila esker azken aste hauetan Manueli eta familiako guztiei eman diguzuen hoberena eta handiena jaso dugulako: zuen maitasuna!

Bestalde, igandean eguerdiko 12:30ean Anoetako San Joan Bataiatzailea parrokia elizan egingo den bederatziruenerako mezetara gonbidatzen zaituztegu.

Aldez aurretik, mila esker. **Odriozola familia.**

tonbola ibiltaria
TOLOSAKO zenbaki saridunak

2. laguntzako atarrik bidunako ibiltaria. jartzeak atarpebean 00657, 00166, 00549, 00999 eta 01277

Pstebeteko kruazorra Mediterraneoan zehar 2. laguntzat: 00316

Saridunak 28 eguneko epea dute Tonbola ibiltariaren hurrean sartzeko. 948 6381155 zenbakira deituz

euskaraz klik!

Irudia ◊ Alegia**IGNACIO GARCIA REN MARGOLANAK**

Alegiako jubilatuen tabernan hil honetan Ignacio Garcia tolosarraren margolanak ikusi daitezke. Hirugarren aldía da bertan margolanak zintzilikatzen dituela. Oraingoan hamaika koadro berri jarri ditu. Nabarmen-tzekoak dira koadro batetik ateratzen den emakume baten bi margolanak. Garciak salgai ditu bere lanak eta interesa dutenek jubilatuen tabernan emango diete margolariarekin harremanetan jartzeko modua. HITZA

Oinatz Bengoetxeak aukera asko ditu finalerdiak jokatzeko**Erredakzioa**

Binakako Pilota Txapelketaren ligaxkaren azken jardunaldia jokatu dute asteburu honetan. Bi leitzarrek egin dezakete aurrera eta finalerdietan sartu. Barriola dagoeneko sailkatu da eta Oinatz Bengoetxeak aukera asko ditu finalerdietan izateko.

Sailkapeneko hirugarren postuan daude Bengoetxea eta Ruiz, sei garaipen eta bi porrotekin. Irabaztearekin nahikoa dute finalerdietara iristeko. Partida galduz gero, beste neurketen emaitzak begiratu beharko dituzte. Guztira sei bikotek dituzte aukerak falta diren hiru txartelak eskuratzeko.

Bestalde, Ruiz lesionatu denez, Bengoetxeak Albiturekin jokatu du Xala eta Barriolaren aurka, igandean, 17:00etan, Eibarko Astelena pilotalekuan.

Zazpi Iturri eta Adiskideren arteko neurketaren gako nagusien partida izango da

Amezketako pilota elkarrekin Galdakaon jokatu du gaur Berria Txapelketako kanporaketa

Imanol Garcia Amezketak

Amezketako Zazpi Iturri pilota elkarrekin bigarren kanporaketa jokatu du Berria Txapelketan. Neurketa irabaziz gero finalerdian izango da. Galdakaoko Adiskide elkartea izango du aurrez aurre, iazko txapelaldia. Kanporaketa gaur jokatu dute, 19:00etan Galdakaon. Xalton Zabala Zazpi Iturriko arduradunak dioenez, nagusien partida izango da kanporaketaren gako.

Kadeteen mailan, Zazpi Iturri Altuna eta Irribarria ariko

dira. Jubenilen mailan, Gallurralde eta Jaka izango dira pilotariak. Nagusietan Ropon eta Garmendia ariko dira. Kadeteen partida irabaziko dutela uste du Zabalak. Jubenilen mailakoa, baina, ziurrenik galduko dutela deritzo: «Oso bikote indartsua dute, Elezkan eta Larunbe. Gu bi aurrelariarekin goaz, Gallurralde eta Jaka. Lehen atzelari bezala jokatu ari zen Jaka, baina orain atzetik aurrera pasatu da eta beste erritmo batean ari da».

Maila horretan erreferentzia badute: asteburuan jokatu tuko Mungia Torneo. Orduan bikote bizkaitarraren aurka Gallurralde eta Rezustak jokatu zuten. «Rezusta Gipuzkoan bere mailan dagoen atzelari onena dela esan daiteke eta Gallurralderekin 22-7 galdu zuten Elezkan eta Larunberekin», gogora ekartzen du Za-

balak. «Partida jokatu behar da eta gure aukerak izan ditzakegu, baina zaila izango da irabaztea».

Elkarte bakoitzak puntu bana irabaziz gero, nagusietan gertatzen denak erabakitzen du kanporaketa. «Zornotzan emandako mailan aritzen bagara, nagusietan gure aukera izango dugu», azaldu du Zazpi Iturriko arduradunak.

Tolosa eta Altuna Urnietan

Eskualdeko beste bi pilotarik ere parte hartzen dute Berria Txapelketan asteburuan. Tolosa anoetarrak eta Altuna berrobaitarrak Andoaino Gazteleku elkarteari ariko dira. Irurtzenen aurka jokatu dute bihar, 17:00etan, Urnietako pilotalekuan. Kanporaketaren irabazleak Zazpi Iturri edo Adiskideren aurka jokatu du finalerdia.

→ Laburrak**Ezker abertzaleak herri programa aurkeztuko du**

AMEZKETA ▶ Amezketako ezker abertzaleak igandean, hilak 13, batzarra egingo du herri programa aurkezteko eta herritarrekin partekatzen. 11:30ean elkartuko dira gela baldioan. Ezker abertzaleak azaldu duenez, batzarrean «gai nagusiak azalduko ditugu: ura, kultur etxea...».

Haur sahararren oporrei buruzko hitzaldia

ADUNA ▶ Adunako Elkartasun Taldeak hitzaldia antolatuko du hilaren 15erako, asteartea, 19:30ean, haur sahararren oporrei buruz. Kultur aretoan egingo da *Sahararik Adunara oporrek bakean izeneko* solasaldia. Bertan hiru hizlari parte hartuko dute: Ane Iturbe Oporrak bakean proiektuko partaidea eta Maitane Lopez de Muniain eta Beatriz Eguskiza haur sahararren hemengo gurasok.

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA

GORENAK
EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SIDRAS SELECTAS DEL PAIS VASCO

HAUETAN DIRA A. KEBATUAI

PROFESOR GOGORREK GAINITU DU ZITELAKO

KALIA, E. P. A. PROFESOR GOGORREK NAGUSI DUTEN ARK.

HORAN DIRA DIBINATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.

WWW.SAGARDOGORENAK.COM



laz Seguros Bilbao taldeko Ibai Salasek irabazi zuen XXII. Insalus Saria. ESTIEZETA

Partaide gehiago espero dituzte XXII. Insalus Sarian

Etzi Aiztondo Klasikoa denez urteroko 110 txirrindularien batz bestekoa igoko dela espero dute

Maier Ugartemendia Lizartza

Urtero bezala aurten ere afizionatu mailako Insalus Saria jokatu da bihar Lizartzan. Sari hau oso garrantzitsua da Lehendakari Txapelketarako kontutan hartzen delako. Lasterketa hau Lizartzako Otsabio kirol elkarteak antolatzen du urtero, aurtengoa XXIII. edizioa izango delarik. Txirrindulariak 15:30ean irtengo dira Lizartzatik eta 110 kilometro inguru egin ondoren, 18:00ak aldera iritsiko dira helmugara. Xa-

bier Balerdi antolatzaileak dionenez, urtero 110 bat partaide inguru izaten dira lasterketa honetan, baina aurten igandean VIII. Aiztondo Klasikoa dela eta, partehartzaile gehiago izatea espero dute.

Ibilbideari dagokionez, aurreko urteetako antzekoa izango da. Lizartzatik abiatu eta Amarotz, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo eta Ordiziara joango dira. Ibilbideko aldaketa bakarra Ordizian bertan egongo da. Errepidean egiten ari diren lanak direla eta, aurreko urteetan ez bezala, aurten ziurrenik Zaldibia bidean dagoen biribilgunean emango baitute buelta. Honela, berriz ere Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Alegiatik pasako dira. Altzora bi aldiz igoko dira, tartean Lizartza eta Amarotzetik pasa beharko

dutelarik. Ondoren, berriz ere Lizartza eta Amarotzetik pasa ondoren, Leaburura igo beharko dira. Handik Tolosa, Alegia eta Altzora joango dira Lizartzako helmugara iritsi aurretik.

XXV. edizioa helburu

Balerdik beraien «ametsa» XXV. ediziora iristea dela adierazi du. Gainera, edizio horretan zerbait berezia egitea gustatuko litzateke. Zehazki beraien asmoa «Euskal Herriko Txapelketa eskatzea» dela dio. Horrez gain, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaileei, beraien laguntza «ezinbestekoa» delako lasterketa aurrera ateratzeko. Sarian zehar laguntzen ariko direnei berriz, Ehiztari Elkarteak antolatutako afariarekin emango dizkiete eskerrak.

600 kiloko finalean izango da Ibarra sokatira taldea

Gizonezkoek 5 talderen aurka jokatu dute finala; emakumezkoek 500 kilokoan bigarren saioa izango dute

M. U. Ibarra

Ibarra gizonen sokatira taldea asteburu honetan jokatu den 600 kiloko finalean izango da. Emakumezkoen taldeak berriz, 500 kiloko ligaxkako bigarren saioa izango du.

Bi saioak bihar jokatu dira Gernikako Jai Alai pilotalekuan. Ibarra gizonen taldeak finalean egotea lortu du Abadiño, Amaieur, Sokarri, Napurrak eta Indarka-Baiona taldeekin batera. 600 kiloko txapela eskuratzeko faboritoak Abadiño eta Sokarri diren arren, Ibarra ere badu aukera txapel hau eskuratzeko denbo-

raldi bikaina egiten ari baita. Beraz, ibarrek galduta ezin duten aukera da honakoa, 2011ko Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa datozen bi jardunaldiak amaituko baita.

Emakumeak 500 kilokoan

Ibarra emakumezkoen taldeak 500 kiloko bigarren saioa jokatu du. Aurreko larunbatean Elizondoko jokatu zuten lehen saioan hirugarren postuan geratu ziren ibarrek. Eta jardunaldi honetan ere zaila izango dute azken postutik ihes egitea. Izan ere, Badaioz taldea orain arteko jardunaldietan nagusi izan da eta Sakanako taldeak merezitako garapena eskuratu zuen 500 kiloko lehen jardunaldian. Hilaren 19an, Arrigorriagan jokatu da aurtengo Sokatira Txapelketa azken jardunaldia. 560 kiloko gizonen taldeak eta 500 kiloko finala emakumezkoetan.

→ Laburrak

Leaburun hauteskundeetan inguruko bilera, bihar

LEABURU-TXARAMA Leabururu-Txaramako ezker abertzaleak bihar udal hauteskundeetan inguruko bilera egingo du. Bilerak 16:30ean izango da Leaburuko kultur etxean. Bertan ingurutzeko ari diren hauteskondeei buruz hitz egingo dute.

Egialde bideko eskailera irekiko dituzte, gaur

IBARRA Azaroan hasi ziren Egialde bideko eskaileren obrak. Eskailera hauek San Bartolome plaza eta Uzturpe Ikastola lotzea dute helburu. Lanak amaitutzat jo dituztenez Ibarra Udalak adierazi du gaur herritarrentzat zabalduko dituztela eskailera hauek. Beraz, hemendik aurrera herritar guztiek Egialde bideko eskailera erabiltzeko aukera izango dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazazina da galduta duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagöa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Aiztondo Klasikoa Adunatik Villabonara izango da

26 taldek hartuko dute parte txirrindulari afizionatu mailako VIII. proba garrantzitsu honetan

Rebeka Calvo Villabona

Afizionatuen mailako VIII. Aiztondo Klasikoa txirrindulari proba ikusteko aukera izango dute txirrindulari zaleek etzi, igandea, eskualdean. Afizionatuetan ikusi daitekeen maila altueneko lasterketa da Aiztondo Klasikoa. Izan ere, Espainiako Koparako balio-

garria da. Aurtengoan 26 taldek hartuko dute parte.

Iaz Zizurkilgo goiko plazatik irten ziren eta Asteasun bukatu, baina aurtengoan lasterketa Adunako zubitik egingo dute 10:00etan eta Villabonako herri-gunean amaitu 13:30ak inguruan, txirrindulariek batz bestea, 38 kilometro orduko abiaduran joaten badira behintzat. Guztira 137,5 km egin beharko dituzte.

Aiztondo Klasika Batzordeak eta Aiztondo bailarako udaletxe-ek antolatutako proba hau Tolosaldeko eta Goierritik barrena joango da. Hauek dira pasako dituzten herriak: Villabona, Irura,

Anoeta, Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Alkiza, Larraul, Asteasu, Zizurkil eta Aduna.

Villabonako Kale Berria

Lasterketaren ondorioz, Villabonako Udaltzaingoa Kale Berriko trafikoa mugatuko duela argitu du. Mozketak, gutxi gorabehera, ordu hauetan izango dira: 09:55etik 10:05era, 11:35etik 11:40era, 12:00etatik 12:05era, 12:20etik 12:25era, 12:40etik 12:45era, 13:05etik 13:10era eta 13:30etik 14:00etara. Era berean, igandean ezingo da kotxea utzi Kale Berriko 18. zenbakitik 40.era.



Urtero ikusle asko gerturaten dira txirrindulari proba ikustera. s.gomez

tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak.com

Arrelekin arnastubiko 15.000ak arte jostakiriragak luk salki argitaratuko dira.
 IRAGARRIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95 telefono zerbitzua

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
 ERRENTAN EMAN

Lan iragarkiak
LAN ETXEBIAK
 BARRA KONTZUTA

Villabona. Larrea azuar-erretxibizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela, gela bat, bainugel eta trastelekuak ditu. 600 euro hilan. Garaje itxiamkin nahiz izanaz gero, 650 euro hilan.

Villabona. Ingelesko klaseak eruten dira Gipuzkoako mailan. Taldeko edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituladuna. Telefonoa 664-16 02 58 eta posta elektronikoa

continental56@hotmail.com

Dirigibitza
AUTDAK
 SALDU

Result campers.
 Renault master 150 zald potentzia. 2007koa. 52.172 km. Oso ondo

zaindua. Luzera 5,45. Zabalera 1,95. Altuera 2,70 sintermovil-ek egindako ekipamendua. 6k bidalatzeko, 4k leogiteko. Sukaldea, hostakailua, komuna, dutxa, berogailua, toleda... Kabinan gehigarri guztiak ditu [aire gerozua, airbag-a...]. Anker (699-35 7160).

Etxebila
 higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

SALDU

AMARA Altea. Batako leku. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Terraza. 48.700.000 pta

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugelak Altea. Batako. 44.200.000 pta

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 48.200.000 pta

AMARA 4 erretan. Logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Bateria. 44.700.000 pta

OROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaldea, bainugelak. 28.000.000 pta

ALETE Orosen oso polita. 3 logela, 2 egongela, sukaldea, bainugelak. Bateria. 30.500.000 pta

ERDIALDEA Urbisako. Logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Bateria. 43.500.000 pta

ESKALDEA Altea. Logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Bateria. 41.500.000 pta

ANTIGUO Berta Berr. 30m2. Altea. Terraza. Garaje, trastelekuak. 30.000.000 pta

ANTIGUO Maritza. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugelak. Bateria, egongela. 47.900.000 pta

MARITIMEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Bateria. Kargora. Parke. 28.300.000 pta

HERROIA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Kargora. Bateria. 38.200.000 pta

ALTEA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugelak. Trastelekuak. Irtegelak. 24.800.000 pta

ALTEA 100m2. 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugelak. 30m2ko terraza. 46.500.000 pta

LORRIBIL 120m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Terrazeta. Jantokia. Parke. 43.600.000 pta

PASAI SAN JUAN 2 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Bateria. 33.200.000 pta

ERRENTANIA Erretan. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Terraza. 28.900.000 pta

LEZO Irtegelak berri. 2 eta 3 logelak dituen. Terraza. Garaje. 200.000 m2 gite.

Leku hau zure iragarkia ren gaindigo

INMOKOSTA
 INMOBILIARIA
SALDU

GETARIA. Erdigunean. Zeboro etxebizitza. 2 gela, sukalde-sukela, bainugelak, trastelekuak, hainbat denda kanpoko begira eta egokitua. **204.545 euro (34 milioi).**

ZARAUTZ. ZIBOZKORIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugelak eta bategia. **276.470 euro (46 milioi).**

ZARAUTZ. VISTA ALEGRE. 5 gela, sukaldea, bainugelak, bategia. **211.490 euro (48,5 milioi).**

ZARAUTZ. IZUPLA. 2 gela, bategia, sukalde, sukalde berria... **140.000 euro (22 milioi).**

ZARAUTZ. ARIZTUMENDI. 2 gela, sukala, sukalde berria... **140.000 euro (22 milioi).**

ZARAUTZ. ERDIALDEAN. 19m2. 2 logela, egongela, sukalde berria, sukalde berria, dirupentia, bategia, irtegelak.

ZARAUTZ. MONTELAUTA. 5 logela, egongela, bategia, sukalde, sukalde berria, 2 bategia, bategia, garaje, Auzo-ko bategia.

ZARAUTZ. ERDIALDEAN 330 m2. 5 eta 4 logela, sukalde, irtegelak... **590.000 euro (95 milioi).**

OROS. ERDIALDEAN BERRIA. 2 gela, sukala, sukalde berria, bainugelak, komuna, denda kanpoko begira eta egokitua. Garajea eta trastelekuak.

OROS. Familia bukatuko etxe onargarria. 3 solairu, 1.500m2 eta atxikita. Lantegi eta terraza. Tinkatuak. Atzeki-irteke gabea.

ZESTOIA 3 gela, sukala, sukalde, bainugelak, bategia, trastelekuak. Irtegelak. **198.300 euro**

GARAJE SALTMENTA. MENDIALTAU. GARAJE ITXIA. LUKU BAT. ERDIOGINAN. BIKOTEA.

ARAMBURU Iruen administratzailea Higiezinaren kudeaketa

943-65 17 13 / 664-37 25 60

www.aramburonet.net

SALGAI

- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, Igozaiarekin, Leitzan, Nafarroa.
- **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
- **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Berra eta Iruan.

ALOKATZEKO

- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herriko kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larraemendin, Tolosan.
- **Txokoak.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, onduko ohea eta terraza, Barakalden.
- **Lokala** lurre auzoan, Tolosan.

www.inmosalbide.com

Salbide
 SALBIDE
 Higiezinaren zerbitzuak

Ala. Erakurtoz berria. 3 logela, 2 bainugelak eta 127 m2ko terraza. 46.388.000 pta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pta.

Bergara. San Lorenzo kalean. 67 m2 etxebizitza 35 m2ko etxebe etxela. Erakurtoz berria. Estreinatze. Promotorek salneurri berria. 41.000.000 pta.

Getaria. Herriko kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Eguzia onean. 41.000.000 pta.

Zarauz. Langaki plaza (Salbideri). 2 logela eta bainugelak dituen. Guztiz berria. 45.000.000 pta.

Zarauz. Vista Alegre. 3 logela, bainugela eta azotea. Terraza handia hegoaldera. Bata ederrak. 50.000.000 pta.

Zarauz. Erdialdean. 2 logelako atxiko erabat berria. Irtegelak eta gara. 51.500.000 pta.

Zarauz. 4 pisu irtegelarik gabe. 3 logela. Berria berria dago. 35.000.000 pta.

Zestoa. Erdialdean. Ete infamilar berrak. 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pta.

Bakea kalea, 6 • 20800 Zarauz
 Telef. 943-01 07 00 • Fax: 665- 71 85 96

www.etxebila.net
 Funtzio irtegelak: 4 - DONDONTIA

ALOKATZEKO

AMARA ZAHARRA Apartamentu oso polita. Kargora. 177m

AMARA ZAHARRA Bata. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugelak. Irtegelak. 3000

ALDE ZAHARRA Irtegelak oso polita. Apartamentu oso. 7500

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugelak. Bateria. 3000

BORRIBETA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugelak. Bateria. 7500

OROS Irtegelak. 2 logela, sukaldea, egongela berria, bainugelak. 5700

943-83 55 18
 www.inmokosta.com
 Orape, 20 - beheka • 20800 Zarauz

zaldibia bada zortedunik

hirusta
 iragarkia • iragarkia

GC
 grupo eibar

3 logelako etxebizitza terraza eta trastelekuarekin. 205.000 euroko balia

2 logelako etxebizitza trastelekuarekin. 160.000 euroko balia

iragarkia iragarkia eta iragarkia

lazkao HEMEN BILI NAHI DUT

Toki Eder
 EDIFICIO • ERABILTZA

943 31 66 11
 620 111 271
 www.grupoiebar.com

3 logelako etxebizitza. 150.000 euroko balia

3 logelako etxebizitza. 145.000 euroko balia

3 logelako etxebizitza eta trastelekuarekin. Bateria, bategia.



19°
7°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	18°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MUSIKA

■ **Tolosa.** Bebe abeslariaren kontzertua gaur Leidorren 20:30ean.

ANTZERKIA

■ **Leitza.** *Aitona Matias* antzez-lana etzi herriko zineman 19:00etan. Igualadako Teatre NU talde katalanak euskaraz eskainiko du lana. Antzezlanak zaharren eta haurren arteko lotura afektiboak aztertzen ditu Maia izeneko haurren eta bere aitonaren bidez.

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

■ **Albiztur.** Aferia gaur Herriko Etxe jatetxean.
■ **Anoeta.** Gaur 21:00etan azeria Goikoetxea jatetxean. Etzi Emakumeen arteko Xake Topaketa Hozpel kaleko udal lokalean.
■ **Berastegi.** Gaur azeria Basurde elkartean.
■ **Ikaztegieta.** Gaur 19:00etan *Berdintasuna, indarkeria eta tratu txarrak* hitzaldia liburute-gian. 21:00etan azeria Toki Alai jatetxean.
■ **Leitza-Areso.** Gaur 20:00etan *Las Mujeres de verdad tienen curvas* filma Aresoko Pake Toki elkartean, ondoren mokadutxo emango dute. Biharko *Emakumeok prekaritateari planto!* lelopean egun osoko ekitaldiak antolatu dituzte. 12:00etan *Leitzaldeko emakumeen errealitatea, 8 bizipenetan* saioa Aurreran; 14:30ean bazkaria Atekabeltzen; 18:00etan *Emozioak landuz, gozatu jolastuz* jokoak plazan eta ondoren poteo feminista eta gauean festa Gaztetxean Garraxiren kontzertuarekin.

■ **Villabona.** *Ikusi, entzun eta...* biziemanaldia gaur 20:00etan Gurean. Bihar 14:00etan bazkaria Olentzo jatetxean.
■ **Aduna.** Bihar azeria Ostaturan 21:00etan.
■ **Alegia.** 21:00etan azeria bihar Hilario Berri tabernan.
■ **Irura.** Bihar 21:00etan azeria Zarretxe tabernan. Gaur da azeria joan ahal izateko txartela erosteko azken eguna.
■ **Ugarte.** Bihar bazkaria 13:30ean elkartean.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Bronte, C. I Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Arribe.** Garmendia A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



BERASTEGIN INAUTERIAK


Tolosako eta Leitzako Inauteriak dira ezagunenak gurean, baina ez dira ospatzen dituzten herri bakarrak. Migel Etxeberriak Berastegiko Inauterietan aterako argazki hiru bidali du Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartzeko eta lau lagunentzako azeria irabazi dezake. Gogoratu argazkiak *argazkiak@tolosaldeko-hitza.info* helbidera bidali behar direla eta martxoaren 22an argitaratuko dugula irabazlearen izena. Zorte on parte-hartzaile guztiei! MIGEL ETXEBERRIA

Agurak



Urte askoan Julen!

Julen Zelarain (Villabona). Eutsi gogor eta animo. Maite zaitugu!



Inauterietako Argazki lehiaketa

- Saria: Denak tabernan 4 pertsonentzako azeria
- Argazkiak nora bidali: argazkiak@tolosaldeko-hitza.info harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik martxoaren 18a bitartean.
- Sariduna: Martxoaren 22ko alean argitaratuko dugu.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan www.tolosa.hitza.info webgunean!